



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

ARRASATEKO UDALBATZAREN MOZIOA , ADIERAZPEN ASKATASUNA , INFORMAZIOA,

ARTEA ETA DEMOKRAZIA DEFENDATZEKO

“Irabazi-Arrasate” udal taldeak, idatzi honen bidez, mozio hau aurkeztu dio Osoko bilkurari:

Duela aste batzuk Joaquim Bosch magistratuak, (“demokraziaren aldeko epaileak” izeneko taldeko kide denak) adierazi zuenez, arte plastiko eta eszenikoak pairatzen ari diren zentsura eta kriminalizazio maila handia da. Eta “hori arrisku bizikoa da adierazpen askatasunarentzat Espainian”. Aste batean bertan bakarrik, honakoak ikusi ditugu: zigorrak rap kantariei, liburu bahiketa , argazki erakusketak zentsuratzea. Eta horregatik magistratuak baieztatu egin du “orain askatasun gutxiago dugula laurogeiko hamarkadan baino”.

Gertakari horiek guztiak ildo edo norabide autoritario eta errepresibo baten ondorio dira. Ildo honi jarraiki, jarraituak edo jazarriak izan dira hainbat pertsona: txiolari, sindikalista, txotxongilolari, politikoki eredu eta sistemarekin ados ez egon eta aurre eginez erantzuten dioten pertsonak - irizten baitiote eredu hori kaltegarria dela beren eskubide eta interesendako- .



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Herritarren segurtasun legeak etsai bilakatu zituen protesta egiten zuten pertsonak. Haren atzetik etorri zen zigor erreforma gogor bat, ados ez daudenak kriminalizatu zituena, hain zuzen ere. Gaur egun, sistema autoritario baterantz bideratzen ari gara eta bertan disidente politiko zigortuaren irudia berriz ere ageri zaigu.

Bada hainbat urte, estatu honetan zenbait printzipio demokratikoren ahuldadea azaleratu zela, “Egin” eta “Egunkaria” bezalako komunikabideak legez kontra itxi zirenetik. Azken boladan ahuldade horren seinaleak gero eta arruntagoak dira, ordea. Besteak beste: Pablo Hásel edo Valtonyc raperoen zigor zentzugabeak, “el Jueves” edo berriki “ Fariña” moduko argitalpenak bahitzea, “Arco” arte azokan izandako zentsura gertakaria, edota, azkenik, Evaristo - “gatillazo” musika taldeko abeslari eta “la polla records” taldekide ohia-guardia zibilek atzeman izana.

Nazioartean zenbait erakundek salatu du ildo hau. Besteak beste, nazioarteko hedabideek (New York Times) eta nazioarteko Amnistiak (adierazpen askatasunaren murrizketei buruz) . Gainera hainbat txostenetan ohartarazi da batetik, prentsa askatasun ezari buruz (“mordaza” legearengatik) eta bestetik, eskubideak murrizten dituzten lege horietako batzuk talka egiten dutela giza eskubideekin ([https:// mordaza-codigo-penal_n_6736032.html](https://mordaza-codigo-penal_n_6736032.html)) eta Europar Batasuneko printzipio zuzentzaileekin.



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Horregatik:

BAT: Arrasateko Udalak babesa ematen die azken boladan bere askatasun artistikoan zentsura kasu gogorrek jasan dituzten pertsonei.

BI: Arrasateko Udalak elkartasuna adierazten die filiazio politikoagatik estatuaren erakundeetatik jazarri eta auzipetu dituzten pertsonei.

HIRU: Arrasateko Udalak kezka agertu eta gaitzetsi egin du adierazpen askatasuna murrizten dituzten ildo eta ekintzak.

LAU: Arrasateko Udalak eskatu du zigor kodearen 578 artikulua erreforma ezabatua izan dadila

BOST: Arrasateko Udalak eskatu du zigor kodearen 490.3 eta 491 artikulua ezabatuak izan daitezkeen, Koroari irainak egitea zigortzen dute eta.

SEI: Arrasateko Udalak eskatu du zigor kodearen 525 artikulua baliogabetzeko, bertan zera zigortu baita: erlijioen iseka edo burla publikoa. Arrazoi honengatik, hain zuzen ere, azken egunotan Jaengo gazte bat izan da zigortua Jesukristoren fotomuntatze bat sare sozialetan zabaltzeagatik.

BOZKETA: ALDEKOAK: 18; ABSTENTZIOAK: 3

ONARTU DU UDALBATZAK MOZIOA, Arrasaten, 2018ko ekainaren 5ean.